

Jaka horidunak eta pentsionistak



JUAN MARI ARREGI

Manifestazioek, grebek eta langile mobilizazioek ez dutela ezertarako balio pentsatzen dute ezkerrenek, eta horregatik ez dira kalera ateratzen. Baina beste behin, errealitateak kontraesanen jarri ditu eta ez lukete besoak gurutzatuta geratu behar, besteak protestan ari diren bitartean.

Jaka horidunen mobilizazioek Ipar Euskal Herrian eta Frantziako Estatuan Emmanuel Macron Frantziako presidentea mugiarazi dute. "Eztabaida nazionala" deitu du joan den astean. Zergatik eztabaida? Gobernuak ez duelako jaka horidunen eskaerei erantzuteko soluzio eta gaitasunik.

Ez da nahikoa izan hidrokarburoei jarritako tasa bertan behera uztea, ezta herritarrek eros ahalmena berreskuratzeko neurriak hartu izana ere, hasierako mobilizazioak horri lotuta egon ziren arren. Haserrealdi sozialak aurrera egin du eta joan den astean 100.000 jaka horidun atera dira kalera beste behin. Macronek dio haserre hori "irtenbide" bihurtu nahi duela, eta horretarako zabaldu omen du eztabaida: fiskalitatea eta gastu publikoa, zerbitzu publikoak, trantsizio ekologikoa, demokrazia eta herritartasuna... Mugimendu horrekin erantzun "komestikoa" eman dezake protestak desaktibatzeke, baina oker dabil horrela. Jaka horidunen antolaketa anitza da eta haserretuta egoten jarraitzen dute, besteak beste, ez delako berrezarri fortunei gaineko zerga.

Euskal pentsiodunak, Huerta de Peraltako grebalariak, eskola kontzertatuetako irakasleak, La Navaleko langileak, eta kalera irten diren sektore guztiak: jaka horidunak erresistentzia eta eraginkortasun eredu dituzue. Bat eginez eta mobilizatuta, helburuak lortzen dira. ●



EQUADOR ETXEA

Kale borrokaren garaia da

AXIER LOPEZ @axierL

Nola da posible? Bolo-bolo dabil galdera, Andaluziako parlamentura VOX sartu zenetik 400.000 lagunengana babesarekin. Arrazoen dantza askotarikoa izaten ari da. Baina, Andaluziaz ari garela, ezin egoera zehatza alboratu. Frankismotik hona, Andaluziak ez du ezagutu PSOErena ez den beste aginterik. Espainiako Estatuko lurrik emankorrean langabezia, prekarietatea, kazikismoa eta 'entxufismoa' Andaluziaren sinonimo bilakatu dira urte hauetan. "Ezkerraren" agindupean. Eta, azken urteotan, inoiz baino agerien haizatu dizkiote lotsak erregimenari: 89 kargu zigortu dituzte 692 milioi euro publiko desbideratzeagatik, bi presidente ohi akusatuen eserlekuan daude, ustelkeriarekin lotutako 13 makro-epaiketa daude zain. "Ezkerraren" ekarpena hori izanik, nola kezkatu orain eskuinaren etorreragatik?

Baina hau ez da Andaluziako kontua bakarrik. Kapitalismoa garatuen dagoen "lehen munduko" herrialde guztietako joera da. 1980ko hamarkadatik hona, ezberdintasunak eta arrakala soziala handitu besterik ez dira egin. Are abaila handiagorekin, krisi ekonomiko jantzitako kapital-metaketa ostean. Merkatuaren menpeko sistema, bertsio liberal ala neoliberean, ziklo berri batean sartzen ari da. Eta epe honen ezaugarri nagusia autoritarismoa da. Berregituratze horretan, alderdi politiko berriak sortu eta berpizten ari dira helburu argi batekin: sektorerik prekarioenak, kapitalismoak gehien kaltetutako horiek motzean lotzea, ezkerreko indarrentzat abagune interesgarria izan litekeen krisi giro ezegonkor honetan.

Eta hala, autoritarismoaren aro honetan ezinbesteko bilakatu dira Abascal eta Casado, Macron eta Le Pen, Bolsonaro eta Bannon; beharrezkoak European Salvini, Duda, Orban, Batten, Akesson, Strache, Gauland, Halla-aho, Heinz-Christian eta enparauak.

Arriskutsuena, ordea, ez da pentsaera edo antolakunde hauen existentzia. Ideia xenofoboak, arrazistak, matxistak, supremazistak edo frankistak arrazoiaren indarrez garaitu daitezkeela ez badugu sinesten, gureak egin baitu. Arazoa da ideia horien normalizazio prozesua, espazio publikoan gatazkaren bitartez, konfrontatu beharrean, instituzioen barruko "joko arau demokratikoaren" afera gisa tratatzea.

VOXeko Andaluziako eleudunari kasu egin eta mugimendu feminista "kale borroka" egitera atera zen, faxismoarenak eta ultra-eskuinarenak bakarrik izandako proposamenak gizaratean normaltasun osoz barneratu aurretik. Baita gure "euskal oasian" ere. ●